

Araba Erdialdeko Biosferaren Erreserba

Babesa eta garapena bateragarri egiteko lurralde-proiektua

Azalpena

2025/2026 ikasturtean Araba Erdialdea izeneko area funtzionalean garatuko da lurraldearen eskala lantzeko Hirigintza VII ikasgaiko praktika. Gasteiz barruan edukiko duen Biosferaren Erreserba bat proiektatuko da, Lurralde Plan Partzial baten zehaztasun-eskalan.



Gasteizaldea, goitik ikusia (A. Sarasuaren irudia)

Europako Batzordeak hiri bakarra izendatu du Euskal Herrian Europako Hiriburu Berde: Gasteiz, 2012an. Izendapen horren karira, aditu batzuek —Antonio Serrano Rodríguezek, adibidez [1]— esan zuten Gasteiz inguruko eskualdeak Biosferaren Erreserba izendatzeko ezaugarriak bete litzakeela (UNESCOK dagoeneko hiru gune izendatu ditu Euskal Herrian Biosferaren Erreserba: Bizkaiko Urdaibai, 1984an, Nafarroako Bardeak, 2000n, eta Irati, 2024an).

Ikasleek, bosnaka (edo launaka), Araba Erdialdeko Biosferaren Erreserba izendatua izan dadin garatu beharreko antolamendu- eta kudeaketa-plana egingo dute. Antolamendu- eta kudeaketa-plan horrek datozen urtetarako Gasteizaldeko lurralde-antolamendu eta ingurumen-babesa gidatuko ditu, Biosferaren Erreserba guztiek eduki beharreko hiru funtzioak bermatuz: ekosistemen kontserbazioa, garapen sozioekonomiko eta kultural iraunkorra, eta ingurumen-hezkuntzarako euskarri logistikoa [2]. Antolamendu- eta kudeaketa-planak, halaber, biosferaren erreserba-izendapena proposatzeko formularioko gai nagusiei erantzun beharko die [3], dokumentazio idatzizko eta grafikoaren bidez.

Emateak

Lehen ematea (2025/10/6): Azterketa eta Helburuak:

- 1.- Antolamendu berria egiteko eremua mugatu eta arrazoitu, idatziz eta grafikoki (*zergatik muga hori eta ez beste bat?*).
- 2.- Aukeratutako eremuaren egungo egoeraren lurralde-azterketa egin, lurralde-elementu nagusiak adieraziz eta aztertuz, esanez erreserbarako zer neurrian egokiak ala desegokiak ote diren.
- 3.- Antolamendu berrirako helburu nagusiak zerrendatu, bai idatziz (gidalerroen modura) bai grafikoki (nahi bada, eskemen bidez).

Bigarren ematea (2025/11/3): Antolamendua:

- 4.- Erreserbarako proposatzen den zonifikazio nagusia, adieraziz eta arrazoituz, grafikoki eta idatziz, hiru zona nagusiak: nukleoa(k), tanpoi-zona(k) eta trantsizio-zona(k). Bi egoera adierazi beharko dira: egungoa eta 2050erako —adibidez— lortu nahi dena.

Hirugarren (eta azken) ematea (2025/12/1): Plana:

- 5.- Aurreko emateetako edukia, osatua, Biosferaren Erreserbarako antolamendu- eta kudeaketa-plan definitiboa eginez. Bereziki, erreserbarako proposatzen den zonifikazio hirukoitza.
- 6.- Antolamendu-proposameneko lurzoruaren erabilerak.
- 7.- Erreserbarako antolamendu- eta kudeaketa-planaren oinarriak, besteak beste Biosferaren Erreserba-proposamena egiteko formularioaren eskakizunak erantzunez.
- 8.- Lortu nahi den emaitzarako baldintzak eta arauak, erreserbako zona bakoitzerako (nukleoak, tanpoi-zonak eta trantsizio-zonak): bereziki, zer jarduerak diren bateragarriak eta zeintzuk debekatzen diren zona bakoitzerako.
- 9.- Hiru zona nagusietan (nukleoak, tanpoi-zonak eta trantsizio-zonak) aurrera eramango diren ekintza nagusiak zehaztu. Komeni da ekintzak ondo zehaztea helburuei dagokionez, lekuari dagokionez, aurrekontuari dagokionez (gutxi gorabeherako zenbakiak izan arren) eta gauzatzeko epeari dagokionez. Hurrengo gaietan antolatuta azaldu daitezke ekintza nagusiak (proposamen bat besterik ez da, Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren 2008ko diagnostiko estrategikoaren egitura bera duena [4]):
 - inguru naturala eta biodibertsitatea
 - ura
 - atmosfera
 - energia
 - hondakinak
 - mugikortasuna eta garraioa

- lurralde- eta hirigintza-plangintza
- gizartea eta bizi-kalitatea
- jarduera ekonomikoa
- ondarea eta kultura
- parte-hartzea

Adibide moduan Iratiko erreserba-hautagaitzarako proposatu den ekintza-zirriborroa ikus daiteke [5], ekintza batzuk orokorregiak izan arren (ondo legoke zehatzagoak izatea). Informazio grafikoa ere gehitu beharko litzateke ekintzei, baita gauzatze-epeak eta aurrekontuak ere.

Hiru emateetarako formatua:

Lehen bi emateak soilik paperean izango dira.

Hirugarrena —azkena—, bai paperean bai PDF —ez oso “pisutsu”— moduan (USB bidez, unean utzi eta itzuliko dena).

Hiru emateetako paperen tamaina librea da (DIN A2 edo DIN A3, ahal bada), baina DIN A4ra tolestuta emango dira.

Informazio grafikoa eta idatzia planoetan uztartzea gomendatzen da, ahalik eta modu grafikoen eta sintetikoenean.

Kartografia

Araba osoko plano bektorialak <https://web.araba.eus/eu/geoaraba> webgunetik jaitsi daitezke, hainbat formatutan, dxf-ak barne.

Katastroko planoak (zatika) hemendik jaitsi daitezke, dxf-ak barne: <https://catastroalava.tracasa.es/>.

Geoeskadi webgunetik ere shp formatuko kartografia bektoriala jaitsi daiteke, ondoren GIS programa batekin dwg formatura pasa daitekeena: <https://www.geo.euskadi.eus/s69-15375/eu/>.

Erreferentziak

[1] Góngora, F. (2011/6/24): “Antonio Serrano: «Vitoria y su comarca pueden ser la próxima Reserva de la Biosfera»”, El Correo: <http://especiales.elcorreo.com/vitoria-capital-verde-europea-2012/noticias/2011-06-24/vitoria-comarca-pueden-proxima-resarva-1509.html> ;

Serrano, A. (2013): “Bases y directrices para la ordenación del territorio, en el marco de un proyecto estratégico para la implantación de una Reserva de la Biosfera en Álava Central”, in Hainbat egile (2013): *Vitoria-Gasteiz, European Green Capital 2012. Propuestas para la reflexión*, CEA, 67-96. https://www.fundacionconama.org/wp-content/uploads/Vitoria_Green_Propuestas_de_reflexion.pdf ;

Orive, L. A. (2007): “Paisajes de relación ciudad-naturaleza. Ensayo de modelos de planificación territorial más sostenible en Vitoria-Gasteiz”, in Hainbat egile (2009): *Ciudades + Verdes. 2º Foro Urbano de Paisaje Vitoria-Gasteiz*, CEA, 137-152: <https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/57/64/25764.pdf> .

[2] UNESCO (1996): “Biosphere reserves: the Seville Strategy and the statutory framework of the world network”: <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000103849> .

[3] UNESCO (1998): “Formulario de propuesta de Reservas de Biosfera”: https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000112229_spa .

[4] Eusko Jaurlaritza (2008): “Urdaibai Biosfera Erreserbaren diagnostiko estrategikoa”: https://www.euskadi.eus/web01-a2inggar/eu/contenidos/documentacion/diagnostico_urdaibai/eu_doc/index.shtml

[5] Iratiko Biosferaren Erreserbako Partzuergoa (2022): “Plan de Acción. Reserva de la Biosfera de Irati”: <https://www.valledesalazar.com/wp-content/uploads/2022/10/Plan-Gestion-Reserva-Biosfera-Irati.pdf>

Gasteizen, 2025eko irailaren 14an
Irakaslea: Unai Fdz. de Betoño